

TURISMOA: Heriotza eta tragedia
ikuskizun turistiko bihurtzeko joera
gora egiten ari da > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA
Partida ez da tanto bakar
batean irabaziko IÑAKI ALTUNA > 9

2019ko abuztuaren 10a | XIII. urtea • 632. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

PUTZUZARREKO TRIKUHARRIA, IRAGANA KONTATZEN DUEN MARKA BAT PAISAIAN > 10



Andoni CANELLADA | FORU



**Heriotza eta tragedia, ikuskizun
turistikoa** 04

**Putzutzarreko trikuharriak izan
ginenaren berri ematen digu** 10

**Nola salbatuko zaituzte lokatz
hauetatik?** 14

In fraganti: Sabina Hourcade 18

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Isidro Esnaola:** Facebooken
librak ez du esaten duena
konponduko
- 08 **Oier Gorosabel:** Muskulu
zuntzen etena
- 09 **Iñaki Altuna:** Partida ez da
tanto bakar batean irabaziko
- 16 **Gorka Etxebarria Dueñas:**
«Oste moste»
- 17 **Joana Garmendia:** Kartzelaren
kodeak
- 20 **Unai Gazelumendi**
- 21 **Nekane Zinkunegi**
Barandiaran: Diskriminazioaren
eskala
- 21 **Joxean Agirre:** Oporrak
- 22 **Ana Elozegi Serna:** Ilunpeko
pilotariei, frontoi txikiko haurrei



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Facebooken librak ez du esaten duena konponduko

Facebooken libra txanpon proiektu berriaren inguruko arreta ez da gutxitu, batik bat egitasmoaren inguruko mesfidantza dela-eta. Uztailean, Facebookeko arduradunak, David Markusek, AEBetako Senatuko Banku Gaietarako Batzordeko saio batean parte hartu zuen. Senatariek galdera asko egin eta zituzten kezkek modu argian azaldu zituzten. Amaieran, giroa ikusita, Markusek esan zuen libra ez dela martxan jarriko «zailantza guztiak argitu arte». Saioa bukatuta, baina, argitu nahi izan zuen txanpon berria abian jartzeko baimenak ziurrenik Suitzan eskatuko dituztela, ez Ameriketako Estatu Batuetan. Ematen du bere jaioterrian Facebookek agortu duela dagoeneko sinesgarritasun guztia.

Aurreko artikuluan adituek plazaratutako hainbat zailantza tekniko eta batez ere ekonomiko zerrendatu nituen. Duda horietatik aparte, baina, egitasmoaren irismena neurtzeko Facebookek eraiki duen narrazioa aztertzea ere beharrezkoa da. Libraren “Txosten zuria”-k lehen paragrafoan aipatzen du munduan 1.700 milioi pertsonak ez dutela finantza sistemara sarbiderik, helduen %31, nahiz eta horietatik 1.000 milioi telefono mugikorra erabili eta beste 500 milioi Internetera sarbidea izan. Ideia bera lantzen da libraren web orrialdean. Bideo batek azaltzen du libra ez dela soilik finantza sistemara sarbidea izatea ahalbidetzeko tresna; txanponari esker, 95 milioi lanpostu sortuko omen dira, %20 igoko dira jendearen diru-sarrerak, %22 gutxituko da pobrezia munduan... Datuok ikusita ez da ulertzen non demontre egon diren filantropo hauek orain arte!

Saharaz azpiko Afrika da munduko eskualde bakarra non barne produktu gordinaren salerosketen %10 mugikor bidez ordaintzen diren. Asian, gehienez ere %7ra iristen da kopuru hori eta munduko beste eskualdeetan ez da %2ra iristen. Lidergo garbia da Afrikak lortutakoa, ze-

hazki, banku sistema zabaldua ez dagoen eskualde batek. Bertan, jende askok ez du bankuko kontu korrontea, bai, aldiz, mugikorra. Eta aspaldi asmatu zituzten ordainketak egiteko aplikazioak. Kenyan, adibidez, 2018an 45 milioi pertsonak (%73) zuten mugikorreko kontu bat, Kenyako Banku Zentralaren arabera. Aplikazio zabaldua M-Pesa da (“M” mugikorraren laburdura da eta *pesa* hitzak “dirua” esan nahi du swahiliz). 2007an abiatu zuten aplikazioa eta egun 21 milioi pertsonak erabiltzen dute ordainketak egin, dirua bidali eta maileguak eskatzeko; guztira 17 milioi eragiketa egiten dira egunero.

Finantza sisteman parte hartzeko tresnak, egon, badaude. Beste kontu bat duten zabalpena da. Nigeria las-ter bihur daiteke Afrikako ekonomiarik handiena. Hala ere, herritarren %6k soilik erabiltzen dute mugikorra fi-

Ordainketak egiteko aplikazioak aspaldi asmatu zituzten. Kenyan, adibidez, aplikazio zabalduena M-Pesa da. «M» mugikorraren laburdura da eta «pesa» hitzak dirua esan nahi du swahiliz

nantza eragiketak egiteko. Eta bankuko kontu korrontea soilik herritarren %60k dute. Bertako mugikor konpainiek diote bankuek oztokatzen dutela mugikor bidezko ordainketen garapena. Eta Gobernuak ez du gehiegi laguntzen: 2017an 10 dolarretik gorako transferentziak egiteko idatzizko dokumentu bat bidaltzeko betebeharra ezarri zuen. Horrela ezer garatzea zaila da, jakina.

Finantza sistema erabiltzeko aplikazioak, beraz, egon, badaude. Teknologia ez da arazoa. Interes pribatuak eta ingurune instituzionalak –Nigeria adibide– izaten dira oztopo nagusiak. Eta horiek ez dira aplikazio berriekin aldatzen, eraldaketa sozialak eta instituzionalak eragiten baizik. Librak ez du esaten duena konponduko. •

TURISMOA

Heriotza eta tragedia ikuskizun turistiko bihurtzeko joera gora egiten ari da

Gizadiak inoiz ezagutu dituen tragedia handienak gertatu ziren lekuetara joatea helburu duen jarduerari “turismo iluna” esaten diote batzuek. Txernobylgo zentral nuklearrak 1986an izan zuen istripu ikaragarriak inguruan eragin zituen aldaketak ikustera, esaterako, gero eta jende gehiago joaten da, Sky eta HBO satellite bidezko telebista kateek eskaini duten telesailak lagunduta, hori bai.

Bertako adituek egin dituzten kalkuluen arabera, aurten 100.000 lagun inguruk bisitatu dute Txernobyl, 2017an

 **JENDARTEA** / joseangel.oria@gaur8.info

Ez omen dute gaixotasun mentalik, baina oporrak pasatzeko lekua aukeratzeko garaian beraiek hartzen dituzten erabakiak ulertzea oso zaila egiten da. Hondamendiak jasandako herriak, heriotza eta sufrimenduarekin lotutakoak, garai batean bizirik eta gaur egun erabat utzita daudenak... «Turismo iluna» da.

izan ziren turista kopurua bikoiztuta, UOC Kataluniako Unibertsitate Irekiko Daniel Liviano eta Francesc Nuñez irakasleek jakinarazi dutenez. «Txernobylera txangoa, lau izarreko hotel batean hiru gau

eginez eta bira, 260 euroren truke». Zentrala hartzen duen Pripjat hiri hustua turismoarentzat 2011n zabaldu zuten, Japoniako Fukushima zentral nuklearra tsunami batek suntsitu zuen urte berean. Ge-

Orain hiru urte egindako argazki honetan Pripjat hiri hustua ikus daiteke. Goiko aldean, Txernobylgo zentralen suntsitutako erreaktorea estaltzen duen sarkofagoa ikusten da.
Milosz MASLANKA | GETTY

rozтик hiria bisitatzen duten turisten kopuruak etengabe egin du gora. Baita bidaiari horiei aurkezten zaien eskaintzak ere. Kiev Ukrainako hiri-buruko turismo erakundeak kalkulatu du 100.000 bisitari-
ra iritsiko direla bertara aurten, 2018ko 72.000 eta 2017ko 50.000 turistak atzean utzita, AEBetako CNBC kateak emandako datuen arabera.

ZINEA ETA TURISMOA

SoloEast konpainiak eskaintzen du istripu nuklearraren ondorengo Txernobyl ikusteko aukera. Victor Korol zuzendariak onartzen du HBOren “Chernobyl” telesailaren eraginez turista kopuruak %48 egi-



«Txernobylera txangoa, lau izarreko hotel batean hiru gau eginez eta bira, 260 euroren truke». Zentrala hartzen duen Pripiat hiri hustua turismoarentzat 2011n zabaldu zuten

Kiev Ukrainako hiriburuko turismo erakundeak kalkulatu du aurten 100.000 bisitarira iritsiko direla, 2018ko 72.000 eta 2017ko 50.000 turistak atzean utzita

ten duela gora urtean, historian izan dugun ezbehar atomiko larrienaren ondorioak ikusi, sentitu, entzun eta usaintzea behartzat dutenak ere gero eta gehiago baitira.

«Heriotzarekin lotutako lekuetara joatea fenomeno berria ez bada ere, mundu osoan turismoa ekonomiaren sektore garrantzitsu bihurtu denez, honelako lekuen inguruko interesa izugarri hazi da, ‘tanatoturismo’ edo ‘turismo iluna’ (*dark tourism*, ingelesez) moduan ezagutzen duguna», esan du Daniel Liviano UOC-ko Ekonomia eta Enpresa Ikerketetako irakasleak.

Zinemari esker ezagun egin zitzaigun San Frantzisko hiri-

Ruandako genozidioak makina bat helmuga turistiko utzi zien «turista ilunei».

GETTY



ko Alcatrazko espetxea, Mauthausengo kontzentrazio-esparrua, Thaiandiako hamabi haur harrapatuta geratu ziren Tham Luangeko leize-zuloa edota Ruandako genozidioa bizi izan zuten lekuak gero eta maizago ageri dira nazioarteko ibilbide turistikoetan.

«Hau oso fenomeno konplexu eta heterogeneoa da: turisten motibazioak askotarikoak dira, helmuga turistikoak eta eskaintzen diren jarduerak ere oso ezberdinak diren bezala», dio Livianok.

Hondamendi naturalak zein bestelakoak, sufrimendua, tragedia, heriotza. Zerk eramaten du gizaki bat horrelako leku bat bisitatzera?

MOTIBAZIO EZBERDINAK

Francesc Nuñez soziologo eta irakasleak uste du joera horrek heriotzak eragiten digun lilurarekin duela zerikusia. «Hiltzea gauza guztien bukaera dela badakigun arren, oso ezezaguna egiten zaigu eta liluratu egiten gaitu; badakigu hil egingo garela, baina inork ez du bere buruaren heriotzan sinisten, eta gizabanako moduan oso zail egiten zaigu aukera hori imajinatzea ere».

Livianok, berriz, gogorarazten du arlo horretan lan egiten duten adituak saiatu izan direla tanatoturisten arrazoiak azaltzen, heriotzarekin eta su-

frimenduarekin lotutako lekuek eta esperientziek turistak zergatik erakartzen ote dituzten argitu nahian.

Alde batetik leudeke motibazio morala edo espirituala dutenak, «erromesaldi sekularren jarrera hartzen dutenak». Pertsona horietako batek genozidio bat gertatu den lekua bisitatu dezake bertan izan ziren biktimekiko enpatia erakusteko, hil zituzten lagunak ondartzeko, gogoan izateko, eginbehar moral batek gidatuta. «Kategoria horretako turista batzuek ez dute biktimekin lotutako motibazio zuzenik izaten, heriotzarekin emozionalki eta sinbolikoki kontaktua edukitzeko beharra edo nahia besterik ez», Liviano irakaslearen hitzetan.

Ikastea izaten da beste motibazioetako bat. Historiarekiko eta kulturarekiko interesa izaten dute beste turista batzuek, «bidaia ikasteko gogo».

Horien artean kokatu behar dira, esaterako, Bigarren Mundu Gerrako holokaustoaren inguruko museoetara ikasleek egiten dituzten bisitak: gidari batek historiako konturen bat azaltzen die, esplikatutakoa gertatu zen leku berean. Duncan Light ikerlariak egin duen azterketaren arabera, tanatoturista gehienek motibazioa zerbait ikasteko edo ulertzeko nahia izaten da.

«AGIAN, BIZIRIK ZAUDELAKO POZIK SENTITZEA DA HELBURUA»

Netflix Internet bidezko ordainpeko telebistak “Dark Tourist” izenburuko telesaila eskaintzen die bezeroei. Bertan, David Farrier kazetari zeelandaberritarrak, turismo ilunak eskaintzen dituen makina bat helmuga turistiko bisitatu eta gero, bera zerk hunkitu zuen esplikatzen du. Fukushimako zentral nuklearraren inguruko eremuan agintariak esandako erradiazioa baino gehiago dagoela ikusi eta urduritu ondoren, bidaia mota honen atzean egon daitekeen arrazoa honela laburtu zuen: «Beharbada,

turismo ilunaren azken helburua bizirik egoteagatik pozik sentitzea litzateke».

Fukushima utzi ondoren, Fuji mendiaren magalean dagoen Aokigaharara joan zen, Suizidioen Basora alegia, bere buruaz beste egitea erabakita japoniar askok hiltzeko aukeratutako lekura. Bertan ere Mendebaldeko herrialdeetatik joandako “turista ilun” batzuekin hitz egiteko aukera izan zuen. Basoan gorpuren bat aurkitu nahi zuten. Jakin-nahi morbosoa, besterik gabe.



Heriotzari buruzko jakin-nahi morbosoa duten turistek beste kategoria bat osatuko lukete. «Horietako batzuk alemanez *schadenfreude* esaten dutena sentitzera ere iristen dira», Livianok esplikatu duenez. Besteen zoritxarrak edo umiliazioak pertsona bati eragiten dion gozamena, poza edo nolabaiteko betetasuna litzateke hitz horrek adierazten duena. Psikologoek diote oso emozio konplexua dela, sadismoarekin zerikusirik duena, eta bere osagaietako bat justizia-nahia dela: «Edozein arrazorengatik biktima batek zigor justu bat jaso duela ospatzeko leku bat bisitatzen duten pertsonen jarrera esplikatzan du horrek».

«SUFRIMENDUAREN POZA»

Heriotza morbosoa oso kontuan izaten du turismo mota horrek eta ezaugarri horiekin negozio egiten du, AEBetako Charles Mansonen Helter Skelter tourraren kasuan ikus dai-

tekeenez. “Sufrimenduaren pozak” hondamendi naturalekin, preso eta espetxeekin edo esklabotzarekin lotutako lekuekin du zerikusia. Espezialista batzuek “turismo ilun distopikoa” deitzen diote mota zehatz horri.

Horrelako tokiak bisitatzen dituzten beste bidaiari batzuek, berriz, ez dute motibazio berezirik. Eskaini zaien aukeren artean ageri da lekua, edo boladan dago, besterik gabe. Livianok galdera sakon bat dauka horren harira: «Fenomeno hau turisten eskariek

«Turismoa ekonomiaren sektore garrantzitsu bihurtu denetik, honelako lekuen inguruko interesa izugarri hazi da, ‘turismo ilun’ gisa ezagutzen duguna», Livianoren arabera

«Hau oso fenomeno konplexu eta heterogeneoa da: turisten motibazioak askotarikoak dira, helmuga turistikoak eta eskaintzen diren jarduerak diren bezala»

Japoniako Nagasaki hiriko zubi ikusgarri bat. Atzo bete ziren 74 urte AEBek hiri horretan bonba nuklear bat bota zutenetik.

GETTY

ala konpainia turistikoen eskaintzek eragiten dute?».

Galderak oinarri sendoak ditu. “Turismo ilunak” negozio egiteko aukera asko eskaintzen die konpainia turistikoei eta mundu horretan bideak zabaltzen hasiak dira. Esperientzia ilun horietara hurbiltzeko “bira experimentalak” ere asmatu dituzte.

MUGAKO ESPERIENTZIA

Mexikoren eta AEBen arteko muga beroan, adibidez, gauibilaldiak antolatzen dira gaur egun, paperik gabeko migranteek herrialde aberatsera pasatzeko ahaleginean bizi behar izaten duten egoera turistek ere sentitzeko: poliziak, zurrak, irainak... Hori da bederen konpainia horiek bezeroei jarritako amua. Tunel ilunak zeharkatzen dituzte, kontratatutako aktoreek bahitzen dituzte... Beste gizakiek ezagutu behar izaten duten sufrimendua, baina arriskurik gabe eta ondo ordainduta, jakina.

Donald Trump AEBetako presidenteak egunero aipatzen duen Mexikoko mugako esperientzia-bira horiek egoiak al dira gizakien sufrimendua azaltzeko? “Turismo ilunaren” inguruko ikerketek alde etikoa ere aztertu izan dute, Kataluniako Unibertsitate Irekiko adituek azaldu dutenez. *Selfie* eta etiketen aroan, eztabaida hori indartu egin da Auschwitz-Birkenauko kontzentrazio-esparruan edo Berlingo Holokaustoaren Museoan turista jakin batzuen jokaera friboloaren eraginez.

«Modekin lotutako jokaera horrek, boladan dauden lekuek erakartzeak, ez dauka zerikusirik balore edo kode etiko eta moralekin, pertsona bakoitzaren kalkulu, interes eta emozioekin baizik», Nuñez irakaslearen arabera.

Turismo ilunaren aurkakoek salatzen dute Auschwitz «deuseztatzearen parke tematiko» bihurtuta dagoela, «errausketalabeen ondoan turistek irri-



«Hiltzea gauza guztien bukaera dela badakigun arren, oso ezezagun egiten zaigu, liluratu egiten gaitu; badakigu hil egingo garela, baina inork ez du bere buruaren heriotzan sinisten»

Tunelak zeharkatzen dituzte, kontratatutako aktoreek bahitzen dituzte... Beste gizakiek ezagutu behar izaten duten sufrimendua, baina arriskurik gabe eta ondo ordainduta, jakina

barretsu argazki kuriosoak egiten dituzten lekua», Daniel Livianok esan bezala.

«Guztiek nahi dute nolabaiten onura lortu, askoren sufrimenduaren inguruan bada ere: bidaia-agentziek, hiriek, gobernuek...», egiaztatu du Francesc Nuñezek.

Soziologoak garbi dauka sufrimenduarekin lotutako lekuak erromesaldiak egiteko ere erabil daitezkeela. Berez

sufrimendu asko eragindako lekuak badira ere, “turismo ilunak” negozio bihurtu ditu, nagusi den komertzializazioak masifikazioa ere eragin baitu, eta modu horretan gogoan hartzeko toki horiek hutsaldu egiten dira. Gizabanako kontsumista horien esperientzia pertsonalen eta abenturen trofeoak (*selfie*-a) lortzeko puntuak besterik ez dira tanatoturismoak saltzen dituenak.

Ezkerreko irudian, Japoniako Fuji mendia eta bere magalean dagoen Aokigahara edo Suizidioen Basoa.
GETTY

Beheko irudian, Kanadako ekialdeko Ternua uhartera izebergak ikustera joandako turistak. Larrialdi klimatikoaren inguruko «turismo iluna» ere sortua da.
Johannes ELSELE | AFP





Oier Gorosabel - @ Txikillana
Fisioterapeuta

Muskulu zuntzen etena

Kirolariek sarrien sufritzen duten osasun arazoetako bat da, baina ez haiek bakarrik: Snoid jauna, esate baterako, gidaria da eta bere aktibitate fisiko nagusia txakurra paseatzea da. Piztia tamaina handikoa da nonbait, eta hari eusteko bizepsarekin bat-bateko indarra egin behar izan zuenean, besoan labainkada bat hartu izan balu bezala igarri zuen. Momentuan oso minduta geratu zitzaion, eta besoa jaso ezinik geratu zen; gainera, hurrengo orduetan hematoma handia agertu zitzaion gal-tzarbetik ukalondora. Horiexek dira muskulu zuntzen etenaren sintoma tipikoak. Lesio hauek oso mingarriak eta, nolabait esateko, espektakularrak izaten diren arren, badute alde onik: oro har ondo eta erraz sendatzekoak dira, eta ez dute ondorio handirik lagatzen. Gaur hobeto ezagutuko ditugu; eta Snoid jaunari zenbait aholku emanaz, segur aski laster bere zakurtzarra arazo barik paseatuko du.

Muskuluen egitura milioika mikrozuntzez osatuta dago, kizkurtzeko ahalmena dutenak eta faszikuluetan antolatzen direnak. Faszikulu horiek aponeurosi izeneko mintzetan bilduta daude, haien artean odol hodiak igarotzen direlarik. Eguneroko bizitzan, lanean, kirolean, muskulu zuntzok denbora guztian kizkurtzen eta lasaitzen aritzen dira, behar ditugun mugimenduak egin ahal izateko. Lan horrek higadura bat ere eragiten du muskuluan: horretara, ariketa saio bakoitzean zuntz kopuru bat eteten da; baina normalean ez dugu ezer igartzen, atsedean hartzen dugunean gorputzak zuntz berriak sortzen dituelako. Are: ariketa baldintza jakin batzuetan eginez gero (kirol entrenamendu saioetan bezala), gorputzak eten zaizkigun fibrak baino kopuru handiagoa sortuko du, eta horren on-

dorioz lehen baino indar gehiago izango dugu.

Bistan da, hau ez dela beti horrela izaten. Kasu batzuetan, ustekabeko mugimendu bortitzen bat egin behar izaten dugu (lanpostuan, adibidez). Beste kasu batzuetan, agian, gorputzari jasan dezakeena baino karga handiagoa sartuko diogu kirol saioan. Edo alde aurretik berotzea ahaztuko zaigu. Kasu horietan, muskuluak min barik jasan dezakeena baino zuntzeten handiagoa gerta daiteke, eta lesio batez berba egin dezakegu.

Bistan denez, ez da berdina mila zuntz haustea, edo bostehun mila; denak leku bakarrean etetea, edo muskulu osoan zehar sakabanatuta; denak batera etetea, edo denbora luze batean zehar... Horren arabera, lesioek sendatze prozesua baldintzatuko duten gradu eta larritasun desberdinak izango dituzte; baina, proze-

sua, funtsean, beti berdina da: zuntzak birsortzea. Lehen egunetan, lesioa egin berri, helburua edema eta hantura kontrolatzea izango da; baina behin fase hori igarota, helburua birsortze prozesua laguntzea da. Fase horretan faktore garrantzitsuena karga da; horrek esan gura du muskulua lehenago sendatuko dela aktibitatean immobilizaturik baino. Baina karga hori egokia izan behar da: ez gehiegi, eta ezta gutxiegi ere. Lehenago tendoi en arazoekin azaldu izan dugun bezala, muskuluen kasuan ere minak adierazten digu karga tamaina egokia: molestia txikia bada ez dago arazorik; jasateko zaila bihurtzen den min batek, berriz, atsedean hartzeko momentua dela adierazten digu. Gure aktibitate maila modu horretan gobernatzen badugu, luze gabe kirolera bueltatzeko moduan izango. •

www.abante.eus



Muskulu zuntzen etena kirolariek sarrien sufritzen duten arazoetako bat da.

GAUR8

{ asteari zeharka begira } **Iñaki Altuna**

Partida ez da tanto bakar batean irabaziko

Aspaldi ikasita behar genuen, baina oraindik ere nabarmendu beharreko printzipio bat bada honakoa: ez dago ez prozesu politiko idilikorik ez kontraesanik gabeko urratsik. Argi eta garbi ikusi dugu Katalunian. Aspaldi inon egondako prozesu herriar eta iraultzaileena garatzen ari dira, eta aparra goigoian zegoenean bazirudien ez zegoela bihurtuenerik, zuzen-zuzen egingo zuela aurrera, bururaino aitaren batean. Antza, Euskal Herriatik ohartarazi zitzaizen Estatuak gogor erantzungo zuela, gurean izandako esperientzia ikasbide. Diotenez ez zuten halakorik (edo hainbestekorik) espero, eta 155. artikulua indarrean jarri izanak eta auzitegiaren bide penala abiatu izanak osoki baldintzatu zituzten prozesuaren abiadura eta izaera (aldebakartasunaren mugak ikusi baitzituzten, aldebikotasunarenak ikusita zituzten tamaina bertsuan; bi-bietan horma berarekin egiten baita topo beti). Egin beharreko ordaina asko garestitu zitzaizen, isilean hainbat ordezkari politikok aitortzen duenez. Jakina, prozesua ez da amaitu, indar metaketa independentista –izandako kontraesan eta arazo guztien gainetik– handitu egin da hauteskundeetan, baina nondik eta nola egin aurrera dago orain eztabaidagai. Partida hau ez dute tanto bakar batean irabaziko, hori bai ikasi dute; jokaldi magiko bat baino gehiago bide orri bat beharko dutela, taktika eta estrategia txertatzen jakingo duena. Euskal Herrian beste horrenbeste beharko da.

Izan ere, Euskal Herrian azken hamarkadan ezkerreko independentismoak izandako eztabaida ezberdinetan haxe izan da, bada, ikasgai garrantzitsuenetako bat: gutxieneko demokratikoak barnebilduko dituen egoera ez da egun batetik bestera, gertaera bakar bati esker, erdietsiko. Ikuspuntu eta lasaitasun horri eustea oso garrantzitsua da prozesu independentista bat egi-

turatu nahi duten indarrentzat, eta horregatik ere EH Bilduk azken hauteskundeetan lortu duen boz zaku handia faktore inportantea da aurrera begira, nahiz eta jokaleku politikoa zenbait eremutan zaildu egin den, batez ere aliantza eta akordio politikoen alorrean. Nork ez du jada espero EAJk mantsotu nahi izango duela estatus politikoari buruzko prozedura Gasteizko Legebiltzarrean?

Zailtasun horien guztien adierazlea da Nafarroan sortutako egoera hauteskundeen ostetik. Talka “Erregimena”-ren eta “Aldaketaren Gobernu”-ren artean irudikatu zen neurri batean, baina ondoren etorritakoa beste zer baita, erregimenaren indarrak zatitu egin baitira (ez da *agostazo*-rik gertatu) eta ezkerreko independentismoaren esponente garbiena oposiziotik ari-

EH Bilduk azken hauteskundeetan lortu duen boz zaku handia faktore inportantea da aurrera begira, nahiz eta jokaleku politikoa zenbait eremutan zaildu egin den

tuko baita. Bi modu daude horri aurre egiteko: ez dela aurrera urratsik izango iragarri eta horrela gertatzea itxaroten geratu, edo prozesu emantzipatzaile bati onura ekarriko dion dekoratua atontzen saiatu. Maisuki azaldu zuen hori dena Iñaki Sotok NAIZ Irratian egindako elkarrizketan: <https://www.naiz.eus/eu/mediateca/audio/inaki-soto-gara-barkos-eta-chiviteren-botere-aldaketaren-aurrean>. Eta ez legoke batere gaizki, testuinguru horretan, lehentasunak finkatzen jakitea, aurrerapausoak desiretatik errealitatera ekartzeko, seguru asko nahi baino arazo eta ñabardura gehiagorekin izanda ere. Esate baterako, Euskal Herrian garatu beharreko prozesu politikoan hain garrantzitsua den lurraldetasunaren eremuan pausotxoak egitea ez litzateke lorpen makala. •

PUTZUZARREKO TRIKUHHARRIA, AUZOLANAK ERAIKIA ETA BISTARATUA

Amagoia Mujika Telleria

Lehendik ere badira aztarnak Hernaniko Igoi-Akolako estazio megalitikoan eta orain Putzuzarreko trikuharria batu behar. Aztarnoi begira duela lau mila urteko gizarteari buruzko tasun asko sumatzen dituzte arkeologoek. Adibidez, trikuharriak auzolanean egiten zituztela. Indusketak ere halaxe egin dituzte.

Putzuzarreko trikuharria, Hernaniko Ereñotzu auzoan, Akolako atsedeen guneetik 200 bat metrora ipar-ekialderantz, pistaren albo samarrean. Aranzadi Zientzia Elkartek bazuen trikuharri horren berri, 2014an eman baitzien abisua Lontxo Ugartek, beste askotan bezala. Idiazabalen bizi den aramaioar horrek lotura dauka Aranzadirekin duela 30 urte baino gehiago. Indusketa askotan parte hartu du boluntario eta bere zaletasun handienetakoa horixe du: mendira joan eta altxorrak topatzen saiatzea. «Pistetatik kanpo ibiltzen naiz, normalean jendea ibiltzen ez den tokietatik, lurrera begira, trikuharriak, dolmenak eta bestelako aztarnak topatu nahian. Jada begia entrenatuta daukat eta normalean asmatzen dut, baina tartean izaten dira alarma faltsuak, aztarna megalitikoak diruditenak, baina gero ez direnak». Putzuzarrekoak ematen zuen eta bada.

Baina, nola jakin trikuharri baten aurrean egon gaitezkeela? «Aldez aurretik paisaia pixka bat eza gutu beharra dago, bertako erliebea nola dagoen jakin. Euskal Herrian horrelako aztarnak topatzeko ohitura handia dago. Barandiaran hasi zen horretan eta gero Elosegik jarraitu zion. Eta haietatik hasita, Aranzadiko bazkideek eta bertako jendeak ezagutzen duten paisaia horretan atentzioa ematen dieten gauzei erreparatzeko ohitura daukate. Dolmen baten ezaugarria, normalean, harrizko ganbara bat izaten da, hutsune bat, gorpuak barruan sartzeko. Horren gainetik eta hori inguratuz harrizko tumulu bat izan ohi da; forma borobilekoa eta erdian konbexua. Laukizuzen formako ganbera bat eta inguru guztia harri tumulu batez bildua. Hori da, berez, trikuharriaren forma, baina normalean suntsituta egoten dira eta topatu ohi duguna harriz egindako konkor bat izaten da. Eta konkoraren erdian azaleratu daitezke ganberaren zati batzuk. Finean, jatorrian trikuharria harriz egindako kaxa bat da, baina



Aranzadiko arkeologoak eta Ereñotzuko bizilagunak elkarlanean aritu dira indusketa lanetan.
Andoni CANELLADA | FOKU

gelditzen diren aztarnak bestelakoak izaten dira», azaldu dute Aranzadi Zientzia Elkarteko Jexux Tapiak eta Manu Zeberio. Arkeologoak dira eta beraiek zuzendu dituzte Putzuzarreko trikuharriaren indusketa lanak duela egun batzuk. Esanda bezala, Aranzadin jasotzen dituzten aztarna megalitikoaren abisuetan, batzuk benetako aztarnak dira eta beste batzuk ez, lehen begi kolpean hala iruditu arren. Putzuzarrekoa, bada. Iaz aritu ziren pixka bat ingurua garbitzen eta joan den astean hiru egunetan aritu dira indusketa lanetan, Hernaniko Udalaren laguntzarekin. Dagoeneko lehen egunean, azal-azalean ari zirela, material arkeologiko interesgarriak topatu zituzten: suharrizko bi printza eta gezi punta bat. «Suharria da historiaurre osoan harrizko tresnak egiteko gehien erabili den lehengaia. Hemen topatutakoak, gainera, gertukoak bai, baina ez dira bertakoak. Pieza horiek

gizakiak egindakoak dira; gauzak mozteko eta ebakitzeko erabili ohi ziren. Putzuzarren topatu dugun suharri mota ez da bertakoa, flyscheko suharria da. Eta horien artean, ematen du Bidaxuneko motakoa dela. Suharria Euskal Herriko toki zehatz batzuetan azalartzen da; Trebiñun, Urbanan, Barrikan eta baita Bidaxunen ere», azaldu du Tapiak. Ohikoa da suharri mota horiek topatzea Ereñotzuko paraje inguru horretan. «Pentsatzeko da garai hartan ere nolabaiteko trukeak eta merkataritza bazegoela. Ez dakigu truke hori nola gertatzen zen. Batzuetan, dagoeneko egindako piezak trukatu zituzten, eta, besteetan, harri masak, lehengaia bera. Eta pentsatzekoa da gero herrixkan bertan lantzen zutela lehengaia tresna horiek egiteko», jarraitu du arkeologoak. Polita izan da. Lehen egunean topatutako gezi puntari falta zitzaien beheko partea topatu baitute



hirugarren egunean. Pieza osoak, zatlantzarik gabe, informazio gehiago emango die adituei.

Ezjakintasunetik magia begitandu daiteke zentimetro gutxi batzuetako suharritzko pieza bati begira jarri eta duela 4.000 urte gure arbasoak nola bizi ziren irudikatzeko ariketa. «Ez da magia, zientzia da», zehaztu du zorrotz Tapiak.

EHORTOKI KOLEKTIBOAK

«Trikuharriak ehortzoki kolektiboak ziren, egungo panteoien modukoak. Harlosez itxitura bat egiten zen, paretak eta tapa bat, eta gorpuk osorik bertan sartzen ziren. Neolito garaian hasi ziren, Kristo aurretik lau mila urte inguru, eta brontze arora arte iraun zuten, Kristo aurretik 1.500-2.000 urte. Hilda-koari zenbait osagairekin laguntzen zitzaien; apaingarriak, berak erabiltzen zituen gauzak, gezi-puntak, armak, labanak, zeramika ontziak... Ez dago es-

Goian, Putzuzarreko trikuharrian topatutako altxorretako batzuk. Ezkerreko aldean, geziaren punta osorik, bi zatitan banatuta. Eskuinekoan, suharri printza bat. Garai batean ebakitzeko erabiltzen zituzten tresna horiek.
Andoni CANELLADA | FOKU


presuki hildakoarentzat egindako ofrendarik. Egunerokoan erabiltzen zituzten tresna arruntak topatu ohi ditugu. Normalean gauza horiek egoten ziren trikuharrietan, beste gauza bat da egunotara zer iristen den eta zer ez. Materia organiko guztia normalean desegin egiten da. Hezurrek eta zeramika ontziek, dauden lurraren azidotasunaren arabera, iraun dezakete edo ez. Kasu honetan, Putzuzar inguruan hare-

harria da nagusi, lurra oso azidoa da eta hezurak eta zeramika desegin egiten dira. Baina harria kontserbatu egiten da», azaldu du Jexux Tapiak.

Suharrizko pieza horiei begira, adituek aise ikus dezakete zer teknika mota erabili zuten pieza egiteko orduan, eta horrek informazioa eskaintzen du. «Ez dakigu bakoitzak bere piezak egiten ote zituen edota herrixkan horretan trebea zen batek egiten zituen guz-

Beste askotan bezala, Lontxo Ugartek eman zuen Putzuzarreko trikuharriaren abisua Aranzadin. Aspaldidanik lotura dauka Aranzadirekin eta maite du mendi bazterretan aztarna megalitikoaren bila aritzea

Dagoeneko lehen egunean gezi punta bat eta bi suharri printza agertu ziren. Hirugarren egunean, gezi punta horren beheko partea topatu zuten, gezia osatzeko falta zen partea. Aurkikuntza ederra eta garrantzitsua



tiak. Hori ezin dugu jakin. Baina teknika desberdinak menderatzen zituztela bai ikusten da. Denboran kokatzea zailxeagoa da, trikuharrien erabilpena denboran dezente luzatu baitzen; neolitotik, Kristo aurretik 4.000 urtetik, 2.500 urte ingurura arte. Badakigu zeintzuk diren pieza zaharrenak eta zeintzuk berrienak, baina denak batera agertzen zaizkigu eta zaila da kronologikoki kokatzea. Ikatz piezaren bat edo lortuz gero baliagarria litzateke, datazio bat egiteko aukera izango genuke-lako». Putzuzarren topatutako geziaren puntari begira, teknika horiek Kristo aurretik 3.000-3.500 urte ingu-

Akolako atsedean gunetik 200 bat metrora dago monumentu megalitikoak. Inguru horretako gainontzekoak tontorrean daude eta, aldiz, orain topatutako hau, beheraxeago.

Andoni CANELLADA | FOKU

Neolitoko gizarteak badakigu non hiltzen ziren, baina ez dakigu non bizi ziren. «Badirudi garrantzi handiagoa ematen zietela hildakoen munduari bizidunenari baino. Ehorztokiekin marka bat egin nahi zuten paisaian»

«Sinismena, lurraldetasuna, gizarte antolaketa... dena lotuta dago eta monumentu megalitikoek horri guztiari buruz hitz egiten digute. Monumentu horiek egiteak auzolana eta elkarlana eskatzen ditu»

rukoak direla ondorioztatu dute adi-tuek eta, beraz, ehorzketen momentu bat, gutxienez, inguru horretan kokatu dute.

Akola inguruan, Sagastietako lepoan, badira trikuharri gehiago. «Igoin-Akolako estazio megalitikoak da hau eta monumentu megalitiko asko daude, trikuharriak gehienak. Baina gehienak tontorrean daude eta Putzuzarreko hau ez, hau beherago dago. Orokorrean pentsatu izan da monumentu megalitiko gehienak mendi tontorren inguruan zeudela. Baina azken urteotan toki baxuagoetan topatzen ari gara», esan du Manu Zeberio.

«Badakigu monumentu megalitikoak multzoka antolatzen direla eta ematen du paisaia pixka bat antolatu egiten dutela. Toki dominanteetan jartzen dira eta multzotan. Kasu honetan multzo nagusitik beheraxeago dago, baina toki nahiko interesgarrian dago, kokapena oso altua ez den arren. Pasoko toki batean dago. Beti egoten dira garrantzia daukaten tokietan».

AURKIKUNTZA ARRAROA IZAN DAITEKE

Putzuzarreko trikuharriak, lehen bistora, badu beste berezitasun bat, «oraindik ondo ziurtatu behar dena», Jexux Tapiak nabarmendu duenez. «Normalean hemen Gipuzkoan topatzen ditugunak ganbara sinpleak izaten dira. Harritzko ganbara hori itxita eta tumuluarekin erabat bilduta egoten da. Baina kasu honetan ematen du ganbaratik pasillo moduko bide bat ateratzen dela tumulutik kanpora. Oraindik ez dugu erabat zehaztu, baina susmo hori daukagu».

Susmo hori baieztatuko balitz, aurkikuntza esanguratsua izango litzateke. «Horrelako monumentuak Errioxan, Araban eta Nafarroan ezagutzen dira, baina Gipuzkoan eta Bizkaian ez. Kulturalki bi talde bereizi daitezke; hegoaldekoak eta iparraldekoak. Iparraldekoak askoz sinpleagoak izaten dira, bai egiturari eta bai tamainari. Hau konfirmatuz gero, lehen kasua izango litzateke Kantauriko itsasaldean. Badaude hori pentsatzeko aztarnak, baina hori konfirmatu egin behar dugu», nabarmendu du Tapiak. Eta baieztatzen bada, «aurkikuntza arraroa eta handia» izango dela garbi dauka. «Ezagunak dira bi isurialdeen arteko harremanak. Baina orain arte, berezitasun bezala, beti mantendu izan da monumentuen arteko desberdintasuna. Badakigu hegoaldean giza-taldeak handiagoak zirela, ingurumena desberdina zelako; garai hartako biztanleak dagoeneko nekazariak eta abeltzainak ziren eta nekazaritza askoz hobe ematen zen hegoan iparrean baino. Horregatik logikoa da pentsatzea hango gizarteak handiagoak direla, nekropoliak handiagoak direla eta, ondorioz, monumentuak ere hala dira. Iparraldeko giza-taldeak, berriz, badirudi txikiagoak zirela. Monumentu asko egiten dituzte, baina denak txikiagoak. Kasu honetan, Putzuzarreko diseinu hau ez da normalean hemen topatzen ditugun antzekoa, hegoaldekoen antzekoagoa dela dirudi. Tira, izan daiteke, hipotesi horren gainean ari gara lanean, baina oraindik baieztatzeko dago».

Neolitoko gizarteak non hiltzen ziren badakigu, baina ez dakigu non bizi zi-

ren. «Segur aski etxeak, baserriak, lokatzarekin eta egurrekin egiten zituzten. Baina badirudi garrantzi handiagoa ematen zietela hildakoen munduari bizidunenari baino. Arkitekturaren aldetik, argi dago indar handia jarri zutela hilerriak egiteko, bai egitura aldetik eta baita mendi gainean egiten zituztelako ere. Paisaia marka bat utzi nahi zuten. Egitura hauek ez dira soilik ehorztoki bat, hildakoaren hezurak ezkutatzeko eta azkonarrak eta otsoak hildakoen hezurren artean ez ibiltzeko toki bat. Hori baino gehiago dira. Monumentaltasun bat eman nahi diete, paisaia marka bat utzi. Edozeinek ezagutu dezakeen egitura bat egin dute eta puntu zehatz batean jarri; segur aski lurraldea kontrolatzeko eta hildakoaren eskuetatik jasotzako lursailen jabetza hori aldarrikatzeko. Gainera, badute beste ezaugarri oso garrantzitsu bat: kolektiboak dira. Sinismena, lurraldetasuna, gizarte antolaketa... dena lotuta dago eta monumentu megalitikoek horri guztiari buruz hitz egiten digute. Monumentu horiek egiteak auzolana eta elkarlana eskatzen ditu. Denon artean eginak eta denontzako. Ez dira buruzagien ehorztokiak, herrixkako edo klan horretako kide guztien ehorztokiak baizik. Horrek ere asko esaten du garai hartako gizarteaz».

AUZOLANA, BERTAKOEK BERE SENTI DEZATEN

Auzolanean egindako trikuharria auzolanean atera dute bistara. Aranzadi Zientzia Elkartek gidatuta, Ereñotzu eta inguruetakoak aritu dira indusketa lanetan. «Aranzadirentzat oso garrantzitsua da hori, herritarren inplikazioa. Hernaniko Udalak lagundu du indusketa eta bertako jendeak jarri duen interesa izugarri polita izan da. Adin guztietako jendea gerturatu da. Erabakiak guk hartzen ditugu, baina jendearen laguntza garrantzitsua da. Aranzadik horren aldeko apustua egiten du, pedagogia lan garrantzitsua egiten da horrelako indusketetan. Arkeologiari garrantzia ematen zaio, aurkikuntza partekatu egiten da, herritarrek inplikatu egiten dira... Bertako herritarrek



Igoi-Akolako estazio megalitikoan badira monumentu gehiago, tontorraren gertuxeago gehienak. Irudian, 1950ean Jesus Elosegik Sagastietako Lepua deitutako dolmenean ateratako argazkia. Bertan, Akola baserriko umeak ageri dira. Jesus ELOSEGI | ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

tokiko ondarea ezagutu eta bere sentitzen dute. Eta hori da gerora aurkikuntza horiek babestuta izateko biderik onena, bertakoek aurkikuntza hori beraiena dela sentitzea», nabarmendu dute arkeologoek.

ORAIN, ERRESPETATU ETA ZAINDU

Ondarea guztiona da eta hori erregulatzeko duten arauak eta izapideak daude. Kasu honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio lan arkeologikoak baimentzea. Tapiak dioenez, «lan arkeologikoak ez dira zaletasun bat. Ondarea ondo zaindu beharreko kontua da». Hartara, kasu honetan ere beharrezkoa izan da Aldundiaren baimena eta hark jarritako baldintzak betetzea.

Hemendik aurrera, zer? «Pieza guztiak gure laborategian aztertuko ditugu eta lehen bistara ikusi ditugun lehengaiak benetan horiek direla ziurtatuko dugu. Gero, orain topatutako piezak estazio megalitiko honetan topatutako beste piezekin konparatuko ditugu, eta baita Gipuzkoako eta Euskal Herriko beste batzuekin ere».

Putzuzarrekoa bezalako egiturak babestu egiten ditu Aldundiak, bai legearen aldetik eta baita fisikoki ere. «Ez dira ixten, baina bai markatu eta seinaleak jarri. Eta urtean pare bat aldiz garbiketa bat egiten da, ingurua

garbi mantentzeko. Hortik aurrera, jendeak errespetatzea eta zaintzea falta da». Kasu batzuetan, tokian tokiko udalak hesitu egiten du monumentua.

Manu Zeberioaren esanean, normalean jendeak errespetatu egiten ditu monumentu megalitikoak. «Lehen ez. Ehiztari askok monumentu horietan jartzen zituzten ehizarako postuak. Baina kasu askotan ezjakintasunagatik egiten dira horrelakoak. Azken hogeitau urtean lan handia egin da kontzientzia zabaltzeko, monumentu horiei balioa emateko eta zaintzeko. Orain, zorionez, ez dira horrelakoak gertatzen. Euskal Herrian normalean jendeak maite ditu bere monumentu megalitikoak eta zaintzen ditu».

Baina ondarea zaintzeaz aparte, monumentu megalitiko horiek informazio benetan baliagarria ematen dute garai bateko gizarteaz. «Klima larrialdiaz hainbeste hitz egiten den garaioan, gizakiak garai bakoitzean klima aldaketei zer-nolako erantzuna eman dien iker dezakegu aurkikuntza horiei esker. Finean, gizakiak betidanik izan duen erronkarik handiena hori izan da: nola aurre egin klima aldaketa horiei», zehaztu du Zeberio. Alegia, nondik gatozen eta bidean zein puntutan gauden jakitea garrantzitsua da nora goazen erabakitzeke orduan.




Monika DEL VALLE | FOKU



IKUSMIRA

NOLA SALBATUKO ZAITUZTE LOKATZ HAUETATIK?

Nola salbatuko zaituztegu lokatz hauetatik? Gauak arriskutsua izaten segitzen du emakumeentzat eta eguna bera ere berdin bihur daiteke izugarri. Berdin da non, zein ordutan eta nola. Berdin argitan edo ilunetan; berdin ausarta edo koldarra izan. Baina, errealitate latz horretaz konturatu baino lehen, nahiago dugu detaileetan korapilatu eta arreta galdu: halako ordutan izan zen, ez dakit nongoak ziren, emakumeak ez dakit zein arrisku hartu zituen, oso bortitza izan zen, ez dakit zenbat aldiz... Akaso detaileei begira-begira jartzen gara egoerari salbuespen zantzuak topatu nahian. Erotuta daude, delitugileak dira, edanda zeuden, drogak kontsumitu zituzten, oso-oso pertsona zitalak dira... Eta berdin beste aldera; bakarrik zihoan kale ilun batean, hitzordu bat egin zuen sare sozialetan, haiekin hizketan hasi zen... Akaso errealitatea latzegia da bere gordinean irentsi ahal izateko: edonork jasan dezake eraso bat eta edonor izan daiteke erasotzailea. Behin hori onartuta akaso lanean hasteko moduan izango gara; emakumeen eta gizonen arteko harreman orekatuak, parekideak eta sanoak bultzatzen dituen jendarte bat eraikitzen. Baina adreilu berriak modu berrituan jartzen hasteko, lehenbizi lokatzetatik atera behar ditugu hankak. Eta horren aurretik, noski, lurrera begiratu eta denok hankak lokatzetan ditugula konturatu eta onartu. Amagoia Mujika Telleria

A blue-toned photograph. On the left, a window with a white frame and multiple panes is partially covered by white, sheer curtains. To the right of the window is a brick wall. Three small, square, dark-framed windows are set into the brick wall. The overall mood is calm and serene.

GAUR8

ireki gure leihoa



Gorka Etxebarria Dueñas
Historialaria

«Oste moste»

Oste moste, chocolates Loste» esaten digu osaba batek, bihar-munean aurpegi benetan eskasarekin agertzen garenean bazkaltzera. Une batez pentsatut Zaldieroak bezala egitea eta sanferminetarako osatzen dituen zinta horietako batekin ihes egitea gaurko zutabeari. Biñeta segida errealista: marrazkilaria eta biok poteoan, dantzan, elkar agurtzen, sarraila ezin irekitzen eta lo ziplo. Gasteizko jaien erdian idatzi behar izateak hori dakar, zein egunetan zauden oso ondo ere ez dakizula. Nire herriko jaiak direlako izango da ziur aski, baina maite ditut Gasteizko jaiak. Atseginak iruditzen zaizkit. Festazaleon partetik, hurrengo Urrezko Zeledon ohoretsua nori eman argi dugu askok: santu eta amabirjinak gorabehera, urtero txosnak ostiralez martxan jartzea erabaki zuen batzordeari. Bestela ere merezi dute txosna batzordekoek, jaiak bukatu bezain pronto hurrengo urteko egitaraua eta azpiegitura prestatzen hasten baitira. Norbaitek mosto bat edo ogitarteko bat eskatzen duen unean, ez gara konturatzen zenbat lan konprometitu eta eskuzabal dagoen atzean. Badira urte batzuk jendez mukurru dakusagula herri mugimenduen jai-gunea eta plazer handia da.

Urteak joan urteak etorri, beti dabil ahoz aho neska eta blusen kontua. Mozkortuta doazela, ozen abesten dutela, kaleak okupatzen dituztela... Ez diot ikusten nik ezer berezia, kontuan hartuta festetan gaudela. Speedez goraino doazen rockzale eta punkarra kuadrillak ez dira atseginagoak izaten. Are gehiago, gero eta emakume gehiago animatzen dira kuadrilletan izena ematera eta neska eta blusen komisioan urteak daramatzate lanean baserritar jantzia jartzen duen oro konprometitu dadin, benetan eta praktikan, erasorik gabeko jai herritar batzuekin. Batez ere gazte asko ikusten ditugu erasoan aurkako ikurrak soinean. Neskek gero eta argiago dute erabakia eta ahalmena beraienak direla eta ez dutela

onartuko beren gorputzen gaineko besteren erabakirik. Azken hamarkadan itzelezko pausua eman da jendartean mugimendu feministaren eskutik eta isiltzen joan dira beren pribilegioen galera sentitu duten ahotsetako asko. Halere, barne-barnean diraute aurreiritziek. Aurrekoan etxeko atea konpontzen ari zen arotz alai eta jatorrak esan zidan: «Ez duzu emakumerik? Bejondeizula! Emakumea duzunean, zure askatasuna, akabo».

Zur eta lur. Emakume batek zure gizon izateko askatasuna moztzen duela uste baduzu, pribilegioez ari zara, eta hortik eraso bat egitera, zure ohorea zapaldu duelako uste-tan, ez dago distantzia handiegirik.

Azken zartako ekonomikoaz gero, aberatsak aberatsagoak dira eta gainontzekoon egoera gero eta prekarioagoa. Badirudi, Joseba Gabilondok iradokitzen duen eran, pribilegiatu eta ez pribilegiatuen jendarte antolaketa batera itzultzen ari garela. Eta prozesu horretan, genero rolak iltzatu eta indartu dira espazio askotan, oinarritzko kontsentsu bezala. Dena askatasunaren izenean: gizon izateko askatasuna, langileak kaleratzeko askatasuna, kontraturik eta lantokirik gabe lan egiteko askatasuna... «Askatasuna» hitza eta esanahia gure egin behar ditugu pribilegiatu zahar eta berrien aurkako gerran, bizimodu duina eta gorputz boteretuak baitira askatasunaren oinarria. Eta jaietan ere, preso politiko guztien askatasuna galdegin dugu, beste behin! •



Ilustrazioa: Jonbi Egurzegi

{ koaderno } **Joana Garmendia**

Kartzelaren kodeak

Hitzezko komunikazioa aztertzeke bi eredu edo modelo oso desberdin daude. Bati, klasikoenari, “kodearen eredu” esaten zaio. Horren arabera, komunikazio orotan, honako elementu hauek atzeman daitezke, eta horien arabera aztertu hitzezko elkartruke oro. Hasteko, igorlea daukagu: gogoan duen zerbait komunikatu nahi dio beste bati –hartzaileari–. Igorleak, gogoan duen hori kodetu egiten du, eta kanal baten bidez igortzen dio mezu kodetua hartzaileari. Hartzaileak, kanalaren bidez jasotzen du mezua; hori deskodetzean ulertuko du igorleak helarazi nahi izan diona.

Igorlearen gogoan zegoen ideia edo ustea, hartzailearen gogora iritsiko da; dena ondo bidean, berdinak izango dira batek igorri nahi izan duena eta besteak jaso duena. Dena ondo bidean. Kodea (hizkuntza) eta kanala egoki partekatu behar dituzte biek. Zailtasunik suerta daiteke bidean: mezuak kanalean egin behar duen bideari traba egiten dion orori “soinu” esaten zaio eredu honetan.

Bigarren eredu berriagoa da; joan den mendeko hirurogeietatik aurrera proposatu eta garatu zen. Eredu honen arabera, komunikatzea ez datza horrenbeste mezu bat kodetu

edo deskodetzean. Izango da hortik ere zerbait, jakina; hizkuntza (alegia, kodea) partekatzen ez duten bi lagunek nekez ulertuko dute elkar. Baina komunikazioa hori baino gehiago da, eta komunikazioan gehiena da hortik apartekoa. Hiztunaren asmoek gidatzen dute, oro har, komunikazioa; elkar ulertzea, neurri handian, besteen gogoak irakurtzen saiatzea da.

Gauza oso desberdinak komunika daitezke hitz, esapide edo are esaldi berdin-berdinak esanaz. Gakoa, orobat, testuinguruan dago: nork, noiz, non, nola, zergatik eta zertarako esan ote duen esan duena; hori ulertzeak lagunduko digu zer esan zaigun ulertzen. Norbaitek “Bada garaia” esaten badizu, ez duzu bene-

tan zer esan dizun ulertuko hiztunaren asmoei buruz zerbait ez badakizu –zertarako garaia den, testuinguruak esango dizu, seguru asko–.

Bigarren eredu gailendu egin zaio, neurri handian, kodearen eredu klasikoagoari. Eta, hala ere, kartzelara bisitan noan bakoitzean, iruditzen zait eredu zaharkitu hori antezarazten digutela, behin eta berriro.

Pareta zuriko gela txikian ez dago testuinguru handitarako lekurik; mahaia eta bi aulki, ezin ñabardura handiegirik igarri hor. Bi lagun elkarri zuzen begira, txandak gordez, gogoan zerrendatuta ekarri duten guztia mezu bihurtu eta den-dena igorri nahian, ezer ahaztu gabe, ezer bidean galdu gabe. Soinurik ia ez da, eta eskerrak; sarraila-hotsak etengo du kanala, akabo gaurkoa.

Funtzionarioak behatxulotik zelatan ikusten ditudanean, horretan ari direla irudikatzen dut; eredu kla-

Gauza oso desberdinak komunika daitezke hitz, esapide edo are esaldi berdin-berdinak esanaz. Gakoa, orobat, testuinguruan dago: nork, noiz, non, nola, zergatik eta zertarako dioten dioena

sikoa errespetatzen ari garela zaintzen, alegia. Kode-tu-deskodetu, ez dela gure artean hortik haragoko harreman trukerik.

Eskerrak, baina, asmoak eta usteak argi eta ziur ditugun guk –hitzen artean, barnean eta azpian, esan ezin ditugun guztiak elkarri ulertzen dizkiogun–. Eskerrak testuingurua soinean dakigun; zergatik eta zertarako ari garen sobera dakigun. Eskerrak, guk, nor garen ondotoxoa dakigun; noiz eta non gauden haiek baino hobeto ulertzen dugun.

Eredu zaharkituari eutsi nahi dioten kartzela horietan kode berriz hitz egiten dugu guk. Ohartuko ote dira halako batean. Bada garaia. •



Sabina Hourcade Biarritzen Europe Surfrider Fondation elkarteak duen egoitzan, hondakinenekin egindako muntaia artistiko baten aurrean. Guillaume FAUVEAU

infraganti SABINA HOURCADE

Donibane Lohizunekoa sortzez, Lapurdi eta Gipuzkoa artean bizi da. Egun, itsasoaren zaintza xede duen Surfrider Foundation Europe elkartearekin lan egiten du. Fundazioaren Biarritzeko egoitzan elkartuta, larrialdi klimatikoa eta beste zenbait gai izan ditugu hizpide erronka ekologikoa eta diseinuarekiko pasioa uztartzen dituen Hourcaderekin.

Kamera du lagun, betiere off/on diseinuak eskaintzen dituen tresna galeria ia amaigabea ahantzi gabe. Bi-deogintzaren eskutik, Planeta-

ren aldeko ekimenen oihartzuna biderkatzea izaten da sarritan Sabina Hourcaderi egokitzen zaion misioa.

Surfrider Foundation Europe elkarteak Biarritzen duen egoitzan hartu gaitu Hourcadek, sorkuntzaren eta konpro-

misoaren arteko mugak alde batera eta bestera zeharkatuz igaro den solasaldia aurrera eramateko. Planetan eragindako zauriak aipatzeko hitzordua egin genuen egunean, eguzkiak gupidarik gabe jotzen zuen azkenaldian fokuen azpian den Biarritzen.

Donibane Lohizunekoa sortzez, Lapurdi eta Gipuzkoa arteko eremuan eman du bizitza gaztetatik gure solaskideak. Hartara, Euskal Ikasketak abiatu zituen Baionako fakultatean, ondoren Andoaingo ESCIVI eskolara jauzia eginez. Ostean, Bordelera jo zuen komunikazio bisualean zuzendari artistiko bilakatzeko eta, jada Surfrider Foundation Europe jarduten zuen bitartean, Parisera *user experience desing* bezala ezagututako arloa lantzeko.

Surfrider Foundation Europeko eremu naturala kontinente zaharra izanik, sentsibilizazio kanpainak sustatzeko

lanean herrialde batetik bestera ibiltzea egokitzen zaio askotan. «Garaiaren arabera, gehiago edo gutxiago bidaiatzea egokitzen zait, baina ohikoa da grabazioak egiteko Euskal Herritik kanpo joan behar izatea», azaldu du.

Garrantzi berezia ematen dio elkarteak kolaboratzaileek, berdin Italian edo Portugalen, martxan ematen dituzten salaketa ekimenak zabaltzeko egiten duen lanari. Finean, beste hainbat alorretan bezala, «klimaren aldeko borrokan ere ezinbestekoa bilakatu delako irudia». Hori bai, ekin-tzailetzaren eta komunikazioaren artean «tentsio kritikoa» atxikitzeak aholkua ematen du; izan ere, bere ofizioak horrela aginduta, kontzientzia berezia garatu du irudiak duen indarrari buruz, «bai onerako baina baita txarrerako ere».

Ikus-entzunezkoen erresuma gaur egun baino dezente murriztagoa zenean «gizartearen sentsibilizazioa suspertzeko» erabili ohi ziren moduak ezin direla besterik gabe baztertu uste du. «Guztiz baliogarriak dira eskala ezberdinetan burutzen diren ekimenak, eta lehenesten den irizpidea ez da zertan beti izan behar ekin-tzon dimentsio bisuala».

Bideo zein webguneetan murgilduta ibiltzen den diseinatzailearen arabera, «jarrera osagarriak» lantzea garrantzitsua da. Adierazi duenez, «hasieratik zabaldu nahi dugun mezua eta mezu hori nola barreiatuko dugun, biak ala biak, behar ditugu buruan izan».

Komunikazio formatuen bilakaera gero eta azkarragoa izanik, «morrontza batean erortzeko arriskua badago, eta, gure kasuan, ingurugiroaren aldeko konpromisoa zabaltzeko bidean ahal den eta eragin-

korrenak izatea da inoiz ahan-
tzi behar ez dugun irizpide ga-
rrantzitsu bat».

ITSASOTIK HARATAGO

Surfrider Foundation Europe
elkartearen irudia itsasoarekin
oso lotuta dago. Egoitza Biarri-
tzen kokatzeko hautua bera
ere bada konpromiso horren
seinale. Hori bai, Hourcadek
nabarmendu duenez, urtero
garatzen duten itsasertzaren
garbiketa operazio famatua
ahantzi gabe, elkartearen «era-
gin eremua zabalduz» joan da.

Hourcaderen ustez, larrialdi
klimatikoaren aurrean egun
bizi dugun kontzientzien sus-
pertzea ezin da ulertu «ha-
markadaz markada, oso bes-
telako eremuetan, Planetaren
suntsipenari aurre egiteko he-
rritarrek sortutako dinamikak
eta tresnak behar bezala balo-
ratu gabe». Horregatik, doni-
bandarraren iritziz, urte luzez
pilatutako eskarmentuak
«sendotasuna» eman diezaio-
ke egun bizi den «olatu berde
berriari». Gizartearen eta giza-
kiaren artean, handiaren eta
txikiaren artean, konpromiso-
ak bilatze aldera, «eguneroko
keinuak» ekuazioan sartzea ere
gomendatzen du Hourcadek.

Donostian bizi da gaur egun
diseinatzaile lapurtarra eta, Gi-
puzkoako hiriburuarekin duen
lotura azaltzerako orduan, pa-
sarte berezia azpimarratzen
du: barrutik bizi izan zuen Do-
nostiako Piraten eskutik hiriko
jai eredu berrasmatzeko «es-
perientzia ikaragarria». Doni-
bandarrak badu boluntario be-
zala Donostian bizitako beste
esperientzia bat ere, bereziki
gogoan atxiki duena; Guardet-
xean, Urgull mendian kokatu-
ko eremu autogestionatu eta
parte hartzailearen eskutik bizi
izan zuena, hain zuzen ere.
«Hiriari lotu ninduen bizipen



Sabina Hourcade diseinatzaileak Gipuzkoako hiriburuan gertutik bizi izandako Donostiako Piraten edo Guardetxeko esperientziak ere izan ditu aipagai. Guillaume FAUVEAU

garrantzitsua izan zen», oroitu
du. «Behetik gorako dinami-
kak, ezberdinen arteko loturak,
herritarren sentimenduak lor-
pen kolektiboen mesedetan
jartzeko estrategiak guztiz ba-
lekoak dira». Horrela laburbil-
tzen du donibandarrak Gipuz-
koako hiriburuan bizitako
esperientzia horietatik atera
zuen ikasgairik nagusia.

Banaka edo era kolektiboan,
pertsonek da solasaldian zehar
web diseinatzaileak marraztu
duen erreferentzia nagusia.
Hori baita bere lehentasuna
kamera atzean denean, baita
ordenagailuaren aurrean dene-
an ere errealtate horri «trans-
lazio bisuala» emateko asmoz.
Horretarako, diseinuaren zein
zinemaren munduan garatuta-
ko gaitasunak ditu lagun.

Justizia soziala eta justizia
ekologikoa uztartuz Estatu
frantsesean indar bereziare-
kin –baita, beste neurri batean
bada ere, Euskal Herrian ere–

**Behetik gorako dinamikak, ezberdinen arteko
loturak eta sentimenduak lorpen kolektiboen
alde jartzeko estrategiak baliagarriak dira,
Hourcaderen ustez, alternatibak eratzeko**

**Konpromiso pertsonala eta kolektiboa landuz,
garraibideak edo jakiak hautatzerakoan
«norberak duen botereaz jabetzeko beharra»
nabarmendu du diseinatzaileak**

altxatu den mugimendua bai-
kor hartu du. Hori bai, Parisko
Gobernutik «ekintzaileen jar-
duerak saihesteko bidean
plantan emandako neurri bor-
titzek», karrikan adierazpen
askatasuna murriztea helburu
dutenak, kezka eragiten diote.

Agurreko orduan, arlo per-
tsonalaren eta dinamika ko-
lektiboaren artean oreka bila-
tzea xede, benetan egoera
iraultzeko «gu geuk dugun bo-
tere handiaz» jabetzeko pre-
mia jartzen du mahaiaren gai-

nean. «Eguneroko keinu ba-
koitzarekin ahal dugu botere
horren seinalea eman, egune-
ro hautuak hartzen ditugula-
ko, berdin garraio modu bat
hobetsiz, berdin produktu bat
edo beste erosiz gure platera
betetzeko. Botere horretaz ja-
betzeak sekulako aukerak za-
bal ditzake Planetak eta gizar-
teak planteatzen dizkiguten
erronkei erantzun berriak
emateko». •

Maite Ubiria Beaumont



Unai
GAZTELUMENDI

iRRITZIA:



Diskriminazioaren eskala

**Nekane
Zinkunegi
Barandiaran**

Belgika eta Herbehereak hautatu ditugu aurtengo oporralkirako. Autoz etxetik harako bidea luzea izanik, Gantetik egin dugu Utrechterako bidea, eta Amsterdam bisitatuta itzuli gara Bruselara.

Belgikako camping batean, seme txikiari laguntzeko gizonezkoen komunera sartu zen ama ikusita, eztabaida sortu da: zein da konbinazio egokia halako egoeretan? Gizonezkoen edo emakumezkoen komunera joan behar du semeari laguntzera amak? Aita bada alabarekin doana, nora sartu behar du?

Helduari dagokion komunera, edo haurrak heltzean joan beharko lukeenera?

Zorionez, Herbehereetako camping batean, genero markarik gabeko komunak topatu ditugu. Bereizgarri bakarra: haurrentzako konketako zulo txikiagoaren aukera duten komunen ikurra.

Gai horretaz ari garela jakin dugu Izaro Lastayo Getariako Arraun Taldeko patroiak ezin duela gizonezkoen Kontxako Banderan lehiatu. Bilbon talde bortxaketa bat egin dutela, eta Donostian sexu erasoa gertatu dela. Eta halakoak saihesteko, emakumeentzako

nagusikeriazko aholku merkeak hedatu dituela Ertzaintzak. Edota Bilboko alkate jaunak, prebentzioan sakondu ordez, nahiago izan duela zigorraren eta sekurokraziaren mezua eman. Bien bitartean, sare sozialak ustezko bortxatzaileen jatorriaren inguruko astakeriez bete dira.

Sistema heteropatriarkala zeinen errotuta daukagun ikusteko balio dute adibide horiek. Besteak beste, umetatik komunetan abiatutako bereizketaren oinarrian dagoenak eragiten baitu gerora eraso matxisten muinean dagoena. •

Oporrak

Joxean Agirre

5oeko hamarkadan, John Howard izeneko kazetari estatubatuar zuri batek azaleko kolorea aldatu eta hilabete batzuk eman zituen lanean, beltza balitz bezala, hegoaldeko kotoi sailetan. Eta liburu bikain bat argitaratu zuen, “Black like me”, beltzen egoera salatuz.

Günter Wallraff izeneko beste kazetari batek antzeko esperientzia bat burutu zuen Alemanian turkiar etorkinen egoera aztertzeko eta “Ganz unten” (frantsesez “Tête de turc”) liburua ateratu zuen.

Yoram Binur israeldarra palestinar bilakatu zen aldi batez eta haiekin bizi ondoren “My enemy, my self” liburua kale-ratu zuen, palestinarren patua eta egoera salatzeko.

Militantziagatik mozerrotu ziren eta hirurek izan zituzten arazoak ondoren eguneroko bizimodura itzultzeko. Azkeniek beren herrialdeetatik alde egin behar izan zuten.

Esaten dute oporrak abagune aproposa direla gure eguneroko guretasunetik atera eta besteren larruan sartzeko. Ni neu datozen bi aste hauetan erromes izan naiteke, baina seguru nago gauetan gizonezkoen zurrungak esnatuko ninduketela Santiagora bidean dauden albergeetan. Edo mendizale bihurtu naiteke Pirinioetan, baina uste dut gainkarga bat dudala ezkerreko zangoan. Pirata ere izan naiteke egun batez Donostian, baina adinak ez dut uste lagunduko didanik abordatzeak behar bezala egiten.

Aberatsen bizimodua ezagutzeko aukerak ere erakartzen nau, baina Caprin, esate baterako, etxe eder baten alokairua ordaintzeko auzokoa atrakatu beharko nukeen.

Datozen bi asteotan euskaldun jator eta aspergarri bat izaten jarraitzea erabaki dut. Sardina erreka jango ditut Algortako Portu Zaharrean edo bokata bat Txomin Barulloren txosnan. Jeltzale baten larruan sartzeko erraza iruditzen zait, batzokiren batera joan naiteke bazkalatzera, baina Bizkaian beharko luke, Gipuzkoan erreparoa ematen dit. Okerrean ere herrian gera naiteke eta garagardo bat edango dut gauetan Argiñanoren terrazan, nafarrek etxera alde egiten dutenean. •



Ana Elozegi Serna

Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Ilunpeko pilotariei, frontoi txikiko haurrei

Pasa dira «San Iñaziyuek». Hango tiobibo eta kontzertu, bertako banda herriko kaleetatik gora eta behera, txosnak, dantzak, amodio-kontuak, gaupasak, Gixau Txapelketa, elektrotxufla eta txikiteo luzeak. Euskal preso politikoen aldeko Sare Eguna, emakume pilotarien partidak. Familia bazkariak ahaztu gabe.

Geuk ere izan genuen geurea: izeba, lehengusu-lehengusinak eta haien seme-alabak elkartu ginen. Gure kasuan ederra izaten da urtean behin elkartzea eta elkarren berri izatea, txikitako pasadizoez hitz egin eta gustura familia giroan egotea. Polita da ere belaunaldi ezberdinak elkartzea, nahiz eta gurean kide askok beste norabaiteko bidea hartua izan. Haiek ere gogoratu genituen. Seguru gure ondoan egon zirela!

Egun berean pilota partidak ikustera joan ginen, bertako Alberdi eta Egigurenek jokatzen zuten beste batzuen artean. Izarraitz pilotalekua beteta zegoen; ikaragarria da oso azken urteetan pilotaren inguruan sortu den afizioa herrian.

Gaurko honetan Ilunpeko mutilez hitz egin nahiko nuke. Donostiako Atanora herriarteko finala ikustera joan ginenean jarraitzaile batek zera galdetu zidan: «noiz idatziko duzu mutil hauen inguruan?». Agindu nion egingo nuela eta hementxe ba agindutakoak betetzera.

Ilunpe Azpeitiko Pilota elkartearen 140 haur izena emana daude gutxi gorabehera, eta horietako bi neskak dira. Ikara-

garria da entrenatzaileek haur horiekin egiten duten lana, ez naiz ari fisikoki edo kirol mailan bakarrik, baizik eta nola hartzen dituzten haurrak txikitatik, nola motibatzen dituzten eta zein gustura joaten diren astero-astero lagunenera pilotan jolastera, lagun talde ederra sortzen delako frontoiaren bueltan.

Atanora joan ginenean ilobak jokatzen zuen finalean, eta zera esan nion: «espero guk zu pilotan ikusten adina gozatzeara zuk pilotan jolasterakoan», ederra baita haur gazte horiek pilotan nola egiten duten ikustea.

Frontoi txikian jokatzen zutenean, bertako aiton-amonak askotan ikustera joaten ziren, frontoi inguruan giroa jarriz eta afizioa eginez. Azkenaldian Izarraitzen jokatzen dute, baina berdin du, hara ere joaten dira. Euskal pilota delako gurea. Oteizak zioen euskal pilota kirol zorrotza dela, norberari bere buruaren aurka jokatzea dagokiolako: exigentziak, bakardadeak, urduritasunak, afizioaren beroak. Partida askok eskatzen dute goreneko maila.

Pareta baten aurka pilota bota eta bueltan dakarrena norberaren zerbait omen da. Zaila da ere guraso bezala, zeure semea frontoian bakarrik sufritzen ikustea, eskuko minak eta masajistak tartean; baina ederra hura zuriz jantzita gurea den kirol ederrean gozatzen ikustea, astero-astero irribarretsu entrenatzera edo partidetara zer gustura joaten den ikustea.

Eta horrelaxe ibiltzen gara frontoitik frontoira, gustura asko, aitona ko-txean hartuta. Ilobak eta semea ikustera, hara eta hona Euskal Herriko leku ezberdinak ezagutuz: Amaiur, Elizondo, Geta-ria, Leintz Gatzaga, Donostia, Zestoa, Legazpi, Lazkao, Aretxabaleta...

Pilotaz ari naizela, ezin aipatu gabe utzi orain dela gutxi sortutako Emakume Pilotari Elkar-tea ere, benetan behar-beharrezkoa baita gure herrian eta baila-ran, denok gure aukerak izan ditzagun kirol eder honetaz gozatzeko. •



Pilota paretaren kontra bota eta bueltan dakarrena norberaren zerbait omen da.

Juan Carlos RUIZ | FOKU

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



LUIS ZIARRUSTA

1983KO UHOLDEAK, LAUDION

1983ko abuztuaren 26an eta 27an 100 euskal herritik gora kolpatu zituzten euri erauntsiak izan ziren. Euriaren ondorioz, ibaiek gainezka egin zuten. Abuztuaren 26an herri horietako batzuetan metro koadroko 600 litrotik gora bota zituen. Euskal herrialderik kaltetuen Bizkaia izan zen; zati bat bakartuta geratu zen, errepideak moztuta, argirik eta telefonorik gabe. Bilbo Aste Nagusia ospatzen ari zen eta uholdeek jai esparru osoa suntsitu zuten, txosnak barne. Kontaketa ofizialaren arabera, 40tik gora hildako izan ziren eta bost lagun desagertu ziren. Bermeo, Galdakao edo Laudio bezalako beste herri batzuek ere izugarritzko kalteak jasan zituzten. Artikulua ilustratzen duen irudian ikusten denez, Nerbioi ibaiak gainezka eginda, uholdeak Laudioko erdiguneko eraikin horretako tabikeak hautsi eta altzariak eraman zituen. Argazkia Luis Ziarrusta argazkilari gasteiztar ezagunak egin zuen, besteak beste "El Correo", "Deia" eta "El Periódico de Alava" egunkarientzat lan egin zuenak. Haren irudi ezagunak, bere garaian mundu osoko hedabide ugarian argitaratu zituztenak, Gasteizko 1976ko martxoaren 3ko gertakariak izan ziren.

